

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko maiatza

Aurkibidea

1. BPGaren aurrerapena
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresarien konfiantza
5. PMI konposatua
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko lehen hiruhilekoan.

Enplegua %2,0 handitu zen aurreko urteko zifren aldean.

2. EAEn 16 eta 64 urte bitartekoen enplegu tasa %70,0 ingurukoa da.

Langabezia tasa 2024ko lehen hiruhilekoan (%7,9) 2023ko hasierakoa baino puntu bat beherago dago.

3. Martxoko KPI indizea %3,2ra igo da EAEn.

Arrazoi nagusia elektrizitatearen BEZa %21era itzultzea izan da.

4. EAEko enpresen konfiantzak gora egin du bigarren hiruhilekoari begira.

INEk argitaratutako enpresen konfiantza indizea 134,9ra igo da.

5. Eurogunea suspertu egin da zerbitzuen bultzadari esker.

Apirileko PMI konposatua 51,4ra igo da.

6. NDFk hamarren bat igo du 2024ko hazkundera, eta 2025ekoa bere horretan utzi du.

Alemaniarako eta Frantziarako aurreikuspenak negatiboak dira orain.






EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko lehen hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%1,6



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Tasa hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak bere azken agertoki makroekonomikoan aurkeztutako aurreikuspena baino bi hamarren handiagoa da. Nahiz eta kanpo sektoreak bilakaera txarra izan, urteko lehen bi hila-beteetan esportazioek beherakada garrantzitsua izan zituzten (urtarrilean %12,7 eta otsailean %10,2 murriztu ziren), badirudi zerbitzuen sek-

torearen sendotasunak konpentsatu zituela beherakada horiek eta hazkundearen eragile nagusia izan zela.

Hiruhileko arteko tasetan ere irakurketa positiboa izan zen; izan ere, 2023ko bigarren hiruhilekoan hasitako goranzko bidea sendotu zen, eta BPGaren hazkundera %0,5ean mantendu zen.


Bi aurrerapen horiek erresilientziaren eta egonkortasunaren irudia indartzen dute, duela urtebetetik hona hedatzen ari dena.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,5




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%2,0

Lan merkatuari dagokionez, kontu ekonomiko-en arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta, urte arteko %2,0 hazi zen aurten-go lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago, eta duela urtebete hasitako goranzko joera ere sendotzen du. Hori horrela, azken urtean lanaldi osoko 19.500 lanpostu inguru sortu dira, eta 1.000.000 enpleguko mailara hurbildu da, 2008az geroztik jaso den erregistrorik onena baita.



Hiruhileko arteko terminoetan, EAEko enplegua %0,5 hazi zen, eta horrek aldatu egiten du, partzialki, 2023aren amaieran izandako moteltzea. Azkenik, urte arteko zenbatespena bat dator Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindakoarekin, eta hiruhileko artekoa labur samar geratu zen (%0,3).


Enpleguaren bilakaera on horrek familien gastu ahalmena handituko du eta kontsumo pribatua bultzatuko du.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,5



Iturria: Eustat.




EAEn 16 eta 64 urte bitarteko enplegu tasa %70,0 ingurukoa da

ENPLEGU TASA. GUZTIRA

Ehunekoak

1. HIRUHILEKOA

%69,9




Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen enplegu tasa %69,9 izan zen aurtengo lehen hiruhilekoan. Zifra hori iazko hiruhileko berekoa (%69,1) baino zortzi hamarren altuagoa da, baina aurreko bi hiruhilekoetakoa baino hiru hamarren txikiagoa. Nolanahi ere, azken lau erregistroak %70,0 ingurukoak dira, eta ez dago alde handirik haien artean.

Emakumeen eta gizonen enplegu taseen artean, ordea, badago alderik. Lehenengo kasuan, lehen hiruhilekoko tasa %66,6 izan zen, zortzi hamarreneko igogerarekin iazko tasaren aldean eta zazpiko jaitsierarekin aurrekoaren aldean. Bigarrenean, tasa %73,2ra iritsi da, duela urtebeteko datua baino zortzi hamarren gorago. Beraz, bi sexuen arteko aldea 6,6 ehuneko puntutan mantentzen da.


ENPLEGU TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak



ENPLEGU TASA. GIZONAK


Ehunekoak



Langabezia tasari dagokionez, lehen hiruhilekoan %7,9an kokatu zen, duela urtebeteko tasa baino puntu bat beherago, baina zazpi hamarren igo da 2023ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Aurreko urtearen aldean jaitsiera handiagoa izan zen emakumeen artean, nahiz eta haien gaur egungo langabezia tasa (%8,2) gizonena (%7,7) baino altuagoa izan. Bestalde, deigarria da Espainiako nazionalitatea duten pertsonen langabezia tasaren (%6,2) eta beste nazionalitate batekoen (%22,4) artean dagoen alde nabarmena.


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Martxoko KPI indizea %3,2ra igo da EAEn

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioak hamarren bat egin zuen gora Euskadin martxoan, eta %3,2an kokatu zen, elektrizitatearen prezioetan izandako bilakaeraren ondorioz. Energia iturri horren prezioak argiaren BEZaren igoerak baldintzatu zituen. Zerga hori ohiko %21eko tasara itzuli zen, luzaroan %5era eta, ondoren, %10era jaitsita egon ondoren.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,2	3,2
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,4	2,9
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	4,9	0,8
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,6	0,3
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,7	1,8
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	2,2	0,3
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	3,4	0,2
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	0,6	0,1


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Argindarraren BEZaren igoera hori elektrizitatearen handizkako prezioaren beherakadaren ondorioz gertatu zen. MWh-a 45 euroko mugatik behera jaistean, %21eko BEZaren itzulera automatikoki aktibatu zen otsailean zein martxoan. Hala eta guztiz ere, elikagaiak neurri batean konpentsatu zuten argindarraren bilakaera horrek inflazioan eragin zuen igoera. Hala, elikagaien prezioak erritmo apalenean egin zuen go-

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



ra 2021eko azarotik, %4,6 igo ondoren. Neurri handi batean, lekaleen eta barazkien prezioek behera egin dutelako izan da hori, eta oliba oli-oak, berriz, ez dio utzi hain gorakada nabarmenak jasotzeari. Bestalde, zerbitzuen beheranzko erresistentzia gorabehera, azpiko inflazioak azken bi urteetako erregistrorik baxuena (%3,4) jaso zuen.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko martxo

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,2	3,2	2,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,6	4,3	2,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,6	4,0	5,2
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,2	1,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	1,0	1,5	0,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,0	1,0	0,8
Osasuna	2,9	2,1	2,9
Garraioa	2,9	2,9	2,2
Komunikazioak	0,5	0,4	-1,9
Aisia eta kultura	3,9	3,8	2,7
Hezkuntza	2,2	2,9	4,1
Jatetxeak eta hotelak	4,4	5,5	5,3
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,7	3,0	4,1

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.



ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresen konfiantzak gora egin du bigarren hiruhilekoari begira

INEk 2024ko bigarren hiruhilekoari dagokion enpresen konfiantza indizea argitaratu du, eta horrek adierazten du EAEko enpresak aurreko bi aldietan baino pixka bat baikorragoak direla. Hala, indize hori 134,9an kokatu da, hau da, azken urteetako bigarren maila altuenean, 2023ko hirugarren hiruhilekoan izandako 135,5eko indizearen ondoren.


Alde batetik, amaitutako hiruhilekoaren egoerari buruzko erantzunak positiboak dira gehienbat, nahiz eta jaitsiera txiki bat dagoen aurreko datuarekin alderatuta. Bestetik, oraingo hiruhilekoarekiko igurikimenak oso onak dira, eta azken urteetako baliorik handienean daude, aurreko aldian erregistratutako datutik sei puntu-ra.

ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI


2. HIRUHILEKOA
134,9



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


2. HIRUHILEKOA
136,0




Estatuan, oro har, enpresen konfiantza indizeak antzeko bilakaera erakutsi zuen, 136,0ko balioarekin hiruhilekorako, 2018tik serie horretan inoiz jaso den baliorik handiena eskuratuta. Espainiako enpresek aurreko hiruhilekoko datua bi puntutan hobetzea lortu dute, eta pandemia hasi aurreko urteetan izandako mailaren oso antzekoa izatera igaro dira.

Hor ere baikortasun nabarmena nabari da amaitutako hiruhilekoarekin alderatuta, baina aurreko balio esanguratsuak errepikatu gabe. Hala, oraingo balorazioa 3,0koa da orain. Bestalde, hiruhileko honekiko igurikimenak asko igo dira 9,3ra arte, hau da, azken urteetako baliorik handiena. 2008ra arte itzuli behar da hain datu altua ikusteko.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.



PMI KONPOSATUA

Eurogunea suspertu egin da zerbitzuen bultzadari esker


Apirilean, euroaren eremuko PMI indize konposatua 51,4an kokatu zen, azken hamaika hilabeteetako mailarik altuenean. Horrek adierazi nahi du euroguneako ekonomia hedapen eremuan sartu dela. Ekonomiaren bi sektore nagusiek bilakaera positiboak erakutsi dituzte, nahiz eta manufakturen sektorearen ekoizpena oraindik negatiboa izan. Hain zuzen ere, apirileko datua 47,3koa izan zen, azken hamabi hilabetetako

altuena, baina sektorearen hedapena adierazten duten 50 puntuetara iritsi gabe. Aitzitik, zerbitzuak 52,9 arte hobetu dira, hau ere maximoa azken hamaika hilabetetan. Enpleguaren hazkundera bizkortu egin zen sektore horretan, eta enpresen konfiantza maila handiak bere horretan jarraitzen du. Prezioek eragin negatiboa izan dute, eta presioa handitu egin dute, bai erosketetan, bai salmentetan.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2024KO APIRILA


51,4




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Jarduera ekonomikoaren hobekuntza orokorra da herrialde nagusietan. Alde batetik, Alemaniak bederatzi hilabeteko uzkurdura utzi zuen atzean, eta 50,5ean kokatu zen, zerbitzuen gorakada handi bati esker. Bestalde, Frantziak ia bi puntutan hobetu du emaitza (49,9) eta hedapen eremura hurbildu da. Bi kasuetan, enbriak ahultasun nabarmena erakusten dute. Bi ekonomia horiek alde batera utzita, eskualdeko gainerako herrialdeetan jarduera osoak gora egin zuen laugarren hilabetez jarraian.

Datozen hamabi hilabeteetarako igurikimenez oso positiboak izaten jarraitzen dute, interes tasen espero den jaitsierari, prezioen moteltzeari eta eskariaren igoerari lotuta.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA




Iturria: Markit.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk hamarren bat igo du 2024ko hazkundera, eta 2025ekoa bere horretan utzi du

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Urtarrileko txostenarekin alderatuta, aldaketa handirik gabe, NDFk aurreikusi du 2024an eta 2025ean ekoizpen globalaren hazkundera 2023ko hazkunde bideari jarraituko diola, eta %3,2ri eutsiko diola. Epe ertainerako aurreikuspenak batez besteko historikoaren azpitik daude, per capita errentaren hazkundera barne, bai ekonomia aurreratuetan, bai garapen bidean daudenetan, baina are gehiago azken horietan, Txinaren eraginez; beraz, ekonomien arteko konbergentzia prozesua moteldu egingo dela uste da.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Munduko ekonomia	3,2	3,2	3,2	0,1	0,0
Ekonomia aurreratuak	1,6	1,7	1,8	0,2	0,0
AEB	2,5	2,7	1,9	0,6	0,2
Eurogunea	0,4	0,8	1,5	-0,1	-0,2
Alemania	-0,3	0,2	1,3	-0,3	-0,3
Frantzia	0,9	0,7	1,4	-0,3	-0,3
Italia	0,9	0,7	0,7	0,0	-0,4
Espainia	2,5	1,9	2,1	0,4	0,0
Erresuma Batua	0,1	0,5	1,5	-0,1	-0,1
Japonia	1,9	0,9	1,0	0,0	0,2
Garatzen ari diren herrialdeak	4,3	4,2	4,2	0,1	0,0
Txina	5,2	4,6	4,1	0,0	0,0
India	7,8	6,8	6,5	0,3	0,0
Errusia	3,6	3,2	1,8	0,6	0,7
Brasil	2,9	2,2	2,1	0,5	0,2


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Aurreikuspen orokorrari eutsi arren, Europako ekonomia askoren aurreikuspenak pixka bat beherantz berrikusi dira, Ukrainako gerrak eragin handiagoa izan duelako, eta Alemaniako eta Frantziako hazkundearen beherapenak izan dira euroaren eremu osoari gehien eragiten diotena.

NDFren arabera, agertoki makroekonomikoarekiko arriskuak murrizten joan dira azken urtean, baina oraindik ere arrisku geopolitikoak daude, eta horrek eragina izan dezake merkataritza globalean eta lehengaien prezioetan. Gainera, Txinako ekonomiari eta zorpetze eta defizit mailari buruzko zalantzek, doikuntza testuinguru batean, nolabaiteko ziurgabetasuna gehitzen diete aurreikuspenei. Zentzu positiboan, egiturazko erreforma batzuek edo adimen artifizialaren aurrerapenak, besteak beste, munduko hazkundera bultzatzen lezakete.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
BPG	5,4	1,8	2,4	1,5	1,7	1,7	1,6
Barneko azken kontsumoa	6,0	1,5	2,0	1,2	1,6	1,4	—
Familien kontsumoa	7,7	1,5	1,8	0,9	1,6	1,5	—
Administrazioaren kontsumoa	0,7	1,8	2,4	2,3	1,3	1,2	—
Kapital eraketa gordina	8,7	2,1	1,6	2,5	2,6	1,6	—
Barne eskaria	6,7	1,7	1,9	1,5	1,8	1,4	—
Esportazioak	17,1	1,2	6,3	-2,5	-0,6	1,6	—
Inportazioak	18,7	1,0	5,4	-2,3	-0,3	1,3	—
Lehen arloa	-8,7	-3,0	1,3	-5,9	-4,4	-2,6	—
Industria eta energia	4,7	0,3	1,2	-0,7	0,5	0,1	—
Eraikuntza	6,7	2,1	0,9	3,6	2,5	1,5	—
Zerbitzuak	5,9	2,4	3,0	2,2	2,1	2,3	—
Balio erantsi gordina	5,5	1,8	2,5	1,5	1,7	1,6	—
Ekoi-zikinaren gaineko zerga garbiak	4,6	1,6	1,8	1,0	1,5	1,9	—
Enplegua	2,8	1,7	1,5	1,6	1,7	1,9	2,0

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Martxoa

2023									2024		
Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsa.	Mart.
93,5	87,7	84,6	85,6	85,7	88,3	88,4	86,0	83,1	83,6	82,0	84,5

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

EAEko ekonomiaren termometroa 84,5ean kokatu zen martxoan; beraz, otsaileko adierazlea baino gorago dago orain eta hazkunde leuneko eremuan beste hilabete batez jarraitzen du. Sektoreen ikuspegitik, zerbitzuek EAEko ekonomiaren dinamizatzaile nagusia izaten jarraitzen dute, eta eraikuntzaren sektoreak, industriak bezala, joera apalagoa erakusten du orain. Kontsumoa da berriro ere ekonomiaren hazkundeari ekarpen handiena egiten dion eskariaren osagaia, enplegua sortzeko erritmo onaren ondorioz.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024				2024	2025
	I	II	III	IV		
BPG	1,4	1,7	2,0	2,2	1,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,4	1,6	2,1	2,1	1,8	1,9
Familiaren kontsumoa	1,3	1,6	2,0	2,0	1,7	1,8
Administrazioaren kontsumoa	1,6	1,9	2,6	2,7	2,2	2,3
Kapital eraketa gordina	2,0	2,5	2,7	3,1	2,6	2,5
Barne eskariaren ekarpena	1,6	1,9	2,3	2,4	2,1	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,2	-0,2	-0,2	-0,2	-0,2	0,0
Lehen arloa	2,2	3,4	0,6	4,6	2,6	4,7
Industria	0,0	0,7	1,2	1,6	0,9	1,8
Eraikuntza	1,2	0,8	1,6	2,0	1,4	1,9
Zerbitzuak	2,0	2,1	2,3	2,4	2,2	2,2
Balio erantsi gordina	1,5	1,7	2,0	2,2	1,9	2,1
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	0,9	1,5	2,1	2,2	1,7	2,2
Lanaldi osoko lanpostuak	2,1	2,0	1,7	1,6	1,8	1,6
Landunak (BJA)	1,1	1,0	1,0	1,0	1,0	1,1

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
BBVA	2,3	2,3	Confebask	1,6	—
Eusko Jaurlaritza	1,9	2,1	Laboral kutxa	1,4	—
Ceprede	1,7	2,0			
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,1			

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
BPG	5,8	2,5	4,0	2,0	1,9	2,1	2,4
Kontsumo pribatua	4,8	1,8	2,6	1,7	0,4	2,3	2,3
Kontsumo publikoa	-0,2	3,8	1,8	4,5	4,7	4,1	3,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,4	0,8	-0,2	1,3	0,0	2,1	1,8
- Aktibo finko materialak	2,1	1,0	0,3	1,7	0,1	1,9	1,7
- Eraikuntzan	2,6	2,3	3,1	3,5	1,1	1,6	3,5
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	-1,6	-4,2	-1,8	-1,9	1,9	-1,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,8	-0,3	-2,8	-0,8	-0,4	3,0	2,4
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	1,7	1,3	1,9	1,4	2,1	2,2
Esportazioak	15,2	2,3	9,6	0,0	-1,0	1,1	-1,1
Inportazioak	7,0	0,3	2,4	-0,2	-2,4	1,6	-1,7

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Oxford Economics	2,2	1,7	Grupo Santander	1,7	2,0
CEPREDE	2,1	2,4	Econ Intelligence Unit	1,7	1,9
BBVA	2,1	2,0	HSBC	1,7	1,6
Bloomberg Economics	2,0	1,8	Inst. Estud. Económicos	1,7	1,9
Moody's Analytics	2,0	2,0	Societe Generale CIB	1,7	1,5
Goldman Sachs	1,9	1,7	Citigroup	1,7	1,4
La Caixa	1,9	2,2	Repsol	1,5	2,3
FUNCAS	1,8	2,0	Batez bestekoa	1,6	1,8
Fitch Ratings	1,8	2,0	Gobernua (2023-10)	2,0	—
AFI	1,8	1,8	Espainiako Bankua (2024-03)	1,9	1,9
CEOE	1,8	2,0	Europar Batzordea (2024-02)	1,7	2,0
Rabobank	1,8	1,9	NDF (2024-01)	1,5	2,1
S&P Global Ratings	1,8	1,9	ELGA (2024-02)	1,5	2,0

Iturria: Consensus Forecast.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
AEB	1,9	2,5	1,7	2,4	2,9	3,1	3,0
Txina	3,0	5,2	4,5	6,3	4,9	5,2	5,3
Japonia	1,0	1,9	2,4	2,3	1,6	1,3	—
Kanada	3,8	1,1	1,8	1,0	0,5	0,9	—
Europar Batasuna	3,5	0,4	1,2	0,6	0,1	0,2	0,5
Eurogunea	3,4	0,4	1,3	0,6	0,1	0,1	0,4
Alemania	1,8	-0,3	-0,1	0,2	-0,1	-0,2	-0,2
Frantzia	2,5	0,7	0,9	1,1	0,7	0,8	1,1
Erresuma Batua	4,3	0,1	0,3	0,2	0,2	-0,2	—
Italia	4,0	0,9	2,3	0,6	0,6	0,7	0,6
Herbehereak	4,3	0,1	2,0	-0,1	-0,5	-0,7	—

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2024KO APIRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,3	1,7	2,9	2,2	4,0	4,1
Japonia	0,6	1,2	2,4	1,8	2,4	2,4
Kanada	0,9	1,9	2,5	2,1	6,2	6,3
Europar Batasuna	0,8	1,6	2,6	2,1	—	—
Eurogunea	0,5	1,4	2,3	1,9	6,6	6,6
Alemania	0,1	1,1	2,4	2,0	5,9	5,7
Frantzia	0,7	1,3	2,5	1,9	7,5	7,6
Erresuma Batua	0,3	1,2	2,5	2,2	4,3	4,5
Italia	0,7	1,0	1,6	1,8	7,5	7,5
Espainia	1,7	1,8	3,0	2,1	—	—
Herbehereak	0,7	1,4	2,6	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.